



BARREN
TOKIKOM



Autobideko istripuak zenbatzen

Gremioen gida

Aroztegiak
Elektrizitatea
Igeltseritza
Iturgintza
Leihoak
Pintura

AROSZTEGIAK



aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutx-gain Industriagunea, 9
20850 Mendara
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485

www.iraolagoitia.com



Olaso industriagunea, 17 behega
943 531 471
609 054 978
carpinteriaimar@hotmail.com



Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.biena.eus
info@biena.eus



Arnatagia Carpinteria



Ermuaranbide, 18 - Elgoibar

687 150 226
650 026 631
636 886 322
943 744 225

asimaaroztegia@gmail.com



AROSZTEGIA ETA ENBALAJEAK
Albitxuri industriagunea, 1-O/ 1-P

943 740 547



ELEKTRIZITATEA



Kilimon hiribidea, 1 - Mendara
943 530 356

iparelek@gmail.com
iparelek@iparelek.com



San Frantzisko, 51
Elgoibar
Tel.: 943 741 238



Uparitzaga 10, 6.B
Elgoibar
karranzaj@gmail.com


Tel.: 943 741 280
Jose Luis: 626 555 999



www.electricidadperosanz.com
eibar@electricidadperosanz.com

Ibergain 17, AC behega
Tel.: 943 202 298
Faxa: 943 205 045
20800 EIBAR

Heriko Enparantza 5
Tel.: 943 033 535
20850 MENDARA



ELEKTRIZITATEA S.L.
(lehen TAES)

Ego-Gain, 9 AC
20600 EIBAR

Andres: 630 957 345
Raimon: 677 512 462
Bulegoa: 943 200 697

IGELTSERITZA



ERREFORMA ETA LEIHOAK

Urasandi, 22 behega - Elgoibar

Tel.: 605 705 204

Gremioen arteko
koordinazioa.
Pladurrekin ere
lan egiten dugu.



Jardiñeta, 25 behega
EIBAR

Ernesto: 620 060 104
Fran: 600 465 789

ITURGINTZA



ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea 17, behega
Elgoibar
943 740 530 / 605 714 905
santanaiturgintza@gmail.com



Heriko Enparantza, 10 behega
MENDARO
943 75 60 44 / 628 529 692
Faxa: 943 75 60 37
pagoerrota@pagoerrotaurgintza.com
www.pagoerrotaurgintza.com



Pedro Muguruza Etorbidea, 11
ELGOIBAR

Tel.: 943 254 522

Faxa: 943 254 523

ongi@ongielgoibar.com

www.ongielgoibar.com



San Roke 10-A, behega B
Elgoibar
Floren Cid: 647 463 436
ibamar@euskalnet.net

TELLABIDE ITURGINTZA



Azpigoeta 7 behega - Mendara
Tel.: 943 755 062 / 607 755 062
iturgintzatefabbide@hotmail.com

ZUBIZARRETA instalazioak

Ubitarte plaza, 5 behega
Elgoibar
943 740 789
650 586 144



PAGOAGA S.A.

BULEGOA ETA ERAKUSKETA
Pedro Migel Urzuzo, 8
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 585
senda@pagoagasa.com
www.pagoagasa.com

BILTEGIA
San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279
faller@pagoagasa.com
ELGOIBAR

LEIHOAK



SIGMA INDUSTRIAGUNEA, 223
lodosof@gmail.com
Tel.: 943 74 34 90

PINTURA



Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552
606 431 120

biok@biokdekorazioa.com

Gremioen gida



ARKAITZ IRURETA ARRIETA



“Goilaratxo batekin ezin dogu mendi bat mugitu, baina hasi gaittezke mugitzen”

Aupa Ibonse, martxo haserako agenda bete-betia eduki dogu Elgoibarren, Arnaldoren etorreria (ongi etorri!) eta horrek ekarri duan aztoramendua Ainararen atxilo-ke-tiarekin bukatu zan, emakume langilliarren nazioarteko eguna ere tartian egonda, Sutegikuek antolatu dittuen Lesboseko hitzaldixek bete dabe lehenengo hamabostaldixa.

Bittartian, amaren etxian altxor batekin berriz ere topo egin dot. Enrike Larrañagak filosofiako klasian proposatu zigun liburua: *Los Papalagi*. Samoako Tiaveako Tuiavii buruzagiak bere herrittarreri idatzitako gogoetak Papalagixon (Europako pertsona zuri-xon) bizitzeko eriarri buruz, lehenengo mundu gerrako eszenatokixan.

Perspektiba aldaketa bitxixa da, kasu honetan antropologia ez dagualako papalagixon *stablishment*arekin kutsatua.

Kristautasunaren izenian Papalagixek argixa eta maittasuna eskaiñi omen zieten Samoarreri, erlijio panteista baten erdixan

egotetik monoteista urrun zerutiar hartan sinistu bihar omen zuten, baina papalagixen faltsutasuna agerixan zagan Tuiaviirentzat, elkar hiltzen ari ziralako lehenengo mundu gerran.

Are gehixago, bizimolde horrek zakarren materialismua, des-humanizaziua, norberekoikerixia, zinemiaren pseudobizitza, denboriaren neurketia, komunikabideen beharra eta abar aztertzen ditu liburuan. Zertarako, Papalagiok ez bagara zoriontsuago bizi?

Unairi esker Mindfulnessen beari ere eduki nuan. Funtxian gauza berataz ari dirala pentsatzen dot, iraganaz edo etorkizunaz arduratu biharrian momentu bakoitza bizitzian daguala zoriontasuna, alegia. Atzo, Samoatik urrun dagan uharte batian bizitakua entzuten egon nintzan Sutegixan; Korok eta Iñakik Lesbosen bizi izandakua. Bizipen gazi-gozoa. Edozein kasutan, nere gogoetia positibua da. Goilaratxo batekin ezin dogu mendi bat mugitu, baina hasi gaittezke mugitzen. Besuak gurutzatuta gertatza baino hobia danik ez dozu uste, Ibonse?



IBON SERRANO LASA

“Horren arrazionala, hertsia, mugatua al da bizitza? Ezezkoan nago”

Arkadi, Tuiavii ohartu zen Papalagiok Matrix panoptikoren biztanle gris ginela. Baina inoiz, inon, izan al gara ezberdin? Rosseauk XVIII.ean: “Gizakia ona omen naturaz, gizarteak du usteldu”. XIX.ean Tahitiko paradisu galdutik Gauguinek: “*D’où venons-nous? que sommes-nous? où allons-nous?*”.

Gainbeheraren erantzuna, nire ikerketen arabera, k.a. 1180an genuke. Izan ere, zibilizazioen talka izugarri bat gertatu omen zen espazio euromediterranean. Emaizta? Ba euskaraz mintzo ziren herri itsastar matriarkalen azpiratzea, eredu judeo-indoeuropear piramidal, hierarkiko, patriarkal, gudazalearen mesederako.

Ondorioz, gutxiengo baten sasi-zorion materialaren truke, egoera zinez apokaliptiko orokortua bizi dugu egun, eta zoritarrez ostruka omen dugu Papalagion totema.

Gutxi balitz, segurtasunaren izenean arima ere lapurtu digute. Gabeziaren eta hurkoarekiko beldurrez, ikuskera otzana, ikaratua, estua eta partziala dugu barneratu.

Ordea, horren arrazionala, hertsia, mugatua al da bizitza? Ezezkoan nago. Oraindik bada adibiderik.

Berriki jakin baita, Jing-Jing izeneko pinguinoak, 2011n galipotetik erreskatatua izan zenetik, urtero Patagoniatik Rio Janeiraino 5.000 kilometro zeharkatzen dituela bere salbatzaile Joao agureari eskerrak emateko.

Maleruski, aldizkariotako azken orrialdeko txutxu-mutxuetatik harago ez zaio heldu gertaera honi; baina ez al dago gertakariaren atzean erabat gainditzen gaituen magia?

Ezen ene lagun, unibertsoak izaera fraktal, holistiko, hologramiko, kuantiko, metagenealogiko, ameslari, morfikoa baitauka.

Bizitzaren mirakulu hau egunero ospatu beharko genuke, bizi unea, elkar maitatu, janaria egoki murtxikatu (30 haginkada gutxienez mokaduko) eta diozun legez, ekin!

Nolabait ekinaz lotu baitugu batere ez (0 pat...) aurreraztea Otegiren etxeratzea 6,5 urteren ondoren.

Tira, ironia ilunetik at, erran nahi baita, beti ipar bat buruan, jardunean datzala gakoa.

EDURNE IZAGIRRE

Psikologoa



Erabaki eskubideak heldutasun minimoa behar du

teko beldurra eta intsegritate ematen diona da gurasoak esatea "zeuk ikusi", asumitzeko prestatua ez dagoen ardura bat bere bizkar-gainean sentiaraziz. Haur edo gazte bat argumentuak irmoki defendatzen dabilenean postura heldu bat imitatzen ari da, gurasoak iritzi propio bat badutela eta ondo egina dagoena zer den garbi dutela ikusteko beharra dauka; honek esku onetan dagoenaren sentipena ematen dio, seguru sentiarazten

"Haurrari 'zeuk ikusi' esateak intsegritatea ematen dio, asumitzeko prest ez dagoen ardura bat bizkar gainean sentitzen baitu"

du, nahiz eta haserre agertu. Adinaren arabera, bere argumentuak entzun, baliotatu, eta eztabaidatu daitezke eta hau gertatzen bada konklusioak ez du garrantziarik zeren sujetu modura errekonozitua izan da eta pentsamendu kritikorako oinarriak ezarriko ditugu.

Gozoki denda batean haur bat sartu eta "hartu nahi duzuna" esateak bakarrik uzten du salmenta estrategia bortitzenen aurrean, eta aukeratu dezake pakete dizdiratsuen, bere pertsonaia gustukoaren marrazkia duten gaitak... Eta aurkituko da gustuko marrazkiaren plastiko batekin eskuetan eta gustatzen ez zaizkion gaitekin.

Gozoki dendara gozoki bila sartu ohi garela azaltzea eta zer jateko gogoa duen galdetzea bidelaguntza bat egitea da, etengabeko kontsumora eta etengabeko frustraziora bideratua dagoen merkatu baten aurrean maneiatzeko baliabideak ematea.

Badut inpresioa nahasmen handi bat dugula gizartean, lehen oso argi zeuden "haurren gauzak" eta "helduen gauzak". Oso argi zegoen zeintzuk ziren helduak erabaki beharrekoak. Gero zabaltzen hasi ziren; trauma psikologikoei buruzko teoriak, haurrak behar duen konfiantza nortasuna garatzeko, sorkuntzarako eta esperimentaziorako espazioaren defentsa, eta abar. Badirudi ezezko bat "nik esaten dudalako" ezartzeak gure seme alabak intsegru bihurtu ditzakeela.

Baina haur edo gaztetxo bati eraba-



ARGITARATZAILEA:



Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR - 943 744 112 - barren@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus
 Publizitatea: 943 743 704 - barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

BARRENEk bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENEk ez du bere gain hartzen Iritzia, Zozoak Beleari eta eskuiztak ataletan adierazitako erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Oier Narbaiza **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldegia, Oier Narbaiza **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Oier Narbaiza **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Irureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurrutxaga, Andoitz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma Mugertza, Ander Izagirre, Ana Alberdi, Eneko Iturbe, Javi Muñoz, Rafa Furnier, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Eider Iriondo, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Eneiz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Sorraluze. **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

LAGUNTZAILEAK:



elgoibar
 1821-2021



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
 GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
 (Hezkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua

BARRENez ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enertzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► ESKUTITZA HERRIARI

Herri maitea, 52 eta 44 urteko bi kideko familia bat gara. Bi txakur eta katuxoa ere baditugu. Laguntza eskean gatozkizue, larrialdi egoera dela eta. Hiru hilabetea ari gara alokatzeko etxebizitza baten bila, gure animaliak izaten utziko digutena. Ez dugu inolako arazorik etxeko aseguru bat egiteko.

Laguntza eskatzen ari naiz, bi urte eman ditugun etxeko ugazabak lana hemen aurkitu duelako eta hemen delako etxea. Udalera jo dut, beste herri batean pisu bat aurkitu genuelako eta 2.500 euroko fidantza eskatu digutelako. Bigarren aldia da laguntza ukatu digutena. Etxea partekatze eskaintza egin didate animaliak kenduz gero, sentimendurik gabeko trapuak balira bezala.

Nekatuta nago eta osasun arazoak dauzkat, aspalditik dudana diabetesa dela eta. Jakin izan dut Udalak pisu hutsak dituela honelako behin-behineko egoerarako. Baina ezin dut gehiago. Mesedez, ez daitezela idatziokien kexatu

gero. Zuen laguntza behar dut, ez dakit eta nora eta norengana jo. Beste pertsona batzuei laguntzen diete arazorik gabe. Nire alabari ere ukatu zioten bere garaian, eta berdin jarraitzen dute.

Mesedez, nire asmoa da norbaitengandik laguntza jasotzea alokairuzko pisu batekin edo norbaitek fidantzako dirua maileguan eman diezadala. Hilaren 31ra arteko tartea baino ez dut etxe honetan eta bestela kale gorrian geldituko naiz.

Ez dut animaliak kentzeko asmorik, guretzat asko baitira. Ez dugu nora joan botatzen bagaituzte; ez dugu inor. Laguntza emateko, deitu laster 629 548 489 zenbakira. Eskerrik asko.

M.R.S.

► OHARRA

Oporrak direla eta, datorren astean ez dugu aldizkaririk argitaratuko. BARREN astekaria apirilaren 1ean itzuliko da zuen buzoietara. Ondo izan.

BARREN

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA


BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeetako zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztelez datorren eskutitzik argitaratuko.



Fausto Gallastegi Basauri

2016ko martxoaren 4an hil zen, 84 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



I. URTEURRENA

Jose Maria Mendikute Zangitu

2015eko martxoaren 17an hil zen, 85 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurrenako meza izango da, zapatuan, martxoak 19, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde aurretik eskerrak.



Ibai ertzean gaixotasunak jota dauden zurzuriak kenduko dituzte, haien ordeztuz lizar eta serbal berriak sartzeko

Deba ibaiaren ertzean dauden 56 zurzuri (*Populus alba*) gaixorik daudelako eta, Elgoibarko Udalak jakinarazi du asteburu honetan moztu egingo dituztela, gero zuhaitz berriak sartzeko.

Lurzuriak jota daude Deba ibaiaren ertzean landatuta dauden hainbat zurzuri. 31 zuhaitz handi eta 25 txiki dira, gaixorik edo hilda daudenak, Urazandipean eta Lerun industriagunean.

Elgoibarko Udalak gaixorik dauden zuhaitzen zati batzuk bidali zizkion Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Ingurumenaren Garapenerako departamentuari, analisia egiteko. Laginak laborategian aztertu ondoren, koleopteroen espezieko intsektu batek (*Saperda Carcharias L*) eragindako kalteen ondorioz zeudela gaixorik ondorioztatu zuten.

Zuhaitzaren enborra zein adarrak zulatzen dituen intsektu zulatzaile honi zururien zulatzaile ere deitzen diote, eta zulo horiek zuhaitzaren egitura kaltetuta eta ahulduta lagatzen dute, haize ufada in-



dartsuak daudenean. Modu horretan adarrak eta enborrak erortzeko arriskua areagotu egiten da. Horixe gertatu zen King-Kong parean dauden bi zuhaitzekin. Biak erori ziren hego haize indartsua izan zen egunetan (azkena iazko irailean).

Zurzuriak, leku desegokia

Elgoibarko zurzuri hauek sartuta egon diren lekua ez da espezie honetako zuhai-

tzentzat egokiena, nahiz eta ibai ondoan egon, Elgoibarko Udalaren arabera. Izan ere, lur are hezeagoak behar dituzte zurzuri hauek, urteko zati batean lur ondo bustia behar izaten dute eta.

Gaur barixakua (martxoak 18) eta bihar ekingo diote zuhaitzak mozteari, eta ondoren aldatuko dituzte arbola berriak. Horien ordeztuz, lizarrak eta serbalak landatuko ditu Ura Agentziak.

Herri Eskolako eta Ikastolako 125 ikaslek martitzenean arbolak landatu ondoren, Altzolako bizilagunek ospatuko dute Zuhaitz Eguna



Ikastolako eta Herri Eskolako 125 umek Zuhaitz Eguna ospatu zuten martitzenean, Agenda 21aren baitan. 11 haritz, hamabost lizar eta bi gorosti landatu zituzten Urruzunon, Albitxuri magalean.

Bestalde, domekan Altzolako bizilagunek Zuhaitz Eguna ospatuko dute. 12:30ean izei bat landatuko dute Zelaia parkean, frontoi ondoan. Zuhaitz hori gabonetan apaintzeko erabiliko dute. Altzolako jai batzordeak mokadutxo bat eskainiko die bertaratuko diren herritarrei.


Gazteen artean enplegua sustatzeko bi ekimen jarriko dituzte martxan Debabarreneko udalek

Debabarreneko udalek bi ekimen abiaraziko dituzte Debegesaren bitartez gazteen enplegua sustatzeko. Batetik, 20 eta 35 urte bitarteko gazte kualifikatuei zuzendutako Hazilan egitasmoa egingo dute; eta, bestetik, Debabarreneko Enplegu Anezka. Azken honek 25 gazte hartuko ditu, 18 urtetik 29 urtera bitartekoak gizonen kasuan eta 34 urte artekoak emakumeen kasuan.

Hazilan proiektua aste honetan jarri da martxan. Goi mailako ikasketak izan arren, lana aurkitu ezinik dabilzan 20 eta 35 urte bitarteko gazteentzako sortu dute. Lehen deialdian 60 lagunek eman dute izena eta 15 aukeratu dituzte. Hasieran formazioa jasoko dute euren gaitasun pertsonalak eta profesionalak hobetzeko, eta gero enpresetan praktikak egingo

dituzte edo proiekturen bat garatuko dute.

Bestalde, Enplegu Anezkan izena emateko epea apirilaren 7ra arte egongo da zabalik. 25 gazte langabe hartuko dituzte. Bost hilabetez formazio saioak jasoko dituzte euren gaitasunak sendotzeko. Besteak beste, teknikari baten laguntzarekin, coaching eta adimen emozionaleko saioak egingo dituzte. Azken batean lana bilatzera bideratutako dinamika landuko dituzte.



Greba mugagabea hasi dute Tratamientos Intxaustiko langileek



Eguaztenean greba mugagabea hasi ziren Elgoibarko Intxausti Tratamientos Superficiales S.A. enpresako beharginak, lan baldintzak hobetzea eskatuz. Soldatak igotzea, lan osasun alorra hobetzea eta ezintasunagatik bajen osagarriak izatea eskatzen dute, LABen arabera. Era berean, lan erreformak langileei eragin dizkien eskubide urraketak saihesteko klausula bereziak nahi dituzte, eta horiek Gipuzkoako metaleko hitzarmenari lotuta egotea ere eskatzen dute. Lantoki honetako beharginek iaz ere egin zuten greba mugagabea, urte sasoi honetan. Lau egun greban eman eta gero akordioa lortu zuten enpresako zuzendaritzarekin.

Otsailean langabezia %3,46 jaitsi da Elgoibarko bizilagunen artean

SEPE Estatuko enplegu zerbitzuaren arabera, langabeziak %3,46 behera egin du otsailean Elgoibarko bizilagunen artean. Horrek esan nahi du urtarrilean baino 24 langabe gutxiago daudela. Urte arteko bilakaerari erreparatuz, iazko urtarrilean baino 59 langabe gutxiago daude Elgoibarren (%8,09ko jaitsiera).


SEPEk 670 langabe erregistratu zituen otsailean. Horietatik gehienak emakumezkoak dira (382) eta gainerakoak (288) gizonezkoak. Langabeziak, Elgoibarren, zerbitzu sektoreari eragiten dio gehienbat, alor horretako 380 lagun lan gabe daude eta. Industria alorrean, berriz, 121 elgoibartarrek ez zuten lanik otsailean.

Mendaron 109 langabe erregistratuta

Mendaron, urtarril eta otsail artean ez da bariaziorik izan, SEPEk eskainitako langabezia datuei dagokienean. Guztira, 109 langabe egon dira erregistratuta bi epe horietan. Iaz epe berean baino 4 langabe gehiago daude (%3,84ko igoera).

Mendaron, 63 emakumek eta 46 gizonezkoek ez zuten lanik otsailean. Zerbitzu alorreko langabetuak 57 ziren eta industria alorrekoak, berriz, 28.

Zizilionen pasabide berria egiteko lanen lizitazio deialdia egin dute



Ziziliongo pasabidea bota eta berria eraikiko dute, albo batean igogailua duela. Elgoibarren oinezkoentzako pasabidea egiteko proiektuari dagozkion obrak egiteko lanen lizitazioaren deialdia kaleratu du Elgoibarko Udalak. 247.684,29 euroko (BEZ gabe) aurrekontua izango dute lanek, eta lizitazioa lortzen duen eraikuntza enpresak lau hilabeteko epea izango du lanak egiteko. Sigma auzoko pasabidearekin egin zuten antzerako lana izango da. Ziziliongo aparkalekutik abiatuko da igogailua, eta bi solairu izango ditu

Hondakinak prebenitzeko informazioa jaso dute merkatariek eta tabernariek



Elgoibarko Udaleko eta Mankomunitateko ordezkariak herriko merkatariekin eta ostalariekin bildu ziren astelehenean herriko merkataritza eta ostalaritza establezimenduen hondakin kudeaketari buruzko azterketaren emaitzak aurkezteko eta hondakinak prebenitzeko praktika onei buruz informatzeko.

Ainara Ladron Logroñoeko kartzelatik Martutenera ekarri dute gaur epaitzeko

Epailleak Martuteneko kartzelara bidali zuen martxoaren 7an Ainara Ladron elgoibartarra, Donostiako Lurralde Auzitegian gaur (martxoak 18) epaitu arte. Joan zen astean, baina, Martutenetik Logroñoeko kartzelara urrundu zituzten Ainara Ladron eta kausa berean auzipetutako Naroa Ariznabarreta. Martutenen zegoen Aritz Azkona ere Valladolidera urrundu zuten. Eguaztenerako berriz Martutenera ekarri zituzten hirurak, gaur epaitzeko.

Gaur epaituko dute Ainara Ladron Donostiako Lurralde Auzitegian beste lau gazterekin batera, 2007an AP-8 autopistan Segiren ilegalizazioaren aurka protestatzeko bide mozketaren batean parte hartzeagatik. Fiskaltzak 2,5 urteko kartzela zigorra eskatzen du auzipetu bakoitzarentzat.



Arg.: Guaixe

Errigorak mila litro olio banatu ditu Elgoibarren

Elgoibarren, 60 familiak baino gehiagok kontsumituko dute aurten Nafarroako Hegoaldeko olio, Errigoraren bidez ekarritakoa. Izan ere, 1.000 litro olio banatu ziren zapatuan. Elgoibarren bost litroko 200 botila banatu dira kanpaina honetan, olio ekologikoa eta konbentzionala batuta. Ekiaren arduradunak pozik azaldu dira, aurreko urteko eskaerak handitu egin direlako. "Igoera nabarmena izan da, iaz 174 eskaera jaso bai nituen, 870 litro", adierazi dute.

Euskal Herriko datuei erreparatuta, aurten 75.000 litro banatu ditu Errigorak. "Mila esker hau posible egin duzuen Errigorako kide, euskaltegi, ikastola, eskola, herri komunikabide, lantoki, elkarte eta herrigintzako boluntario guztiei!", eskertu du.




Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus - 943 744 112



Markesina berria Maalan: “Eguneroko autobus era-biltzailea naiz eta sarri askotan eskatu izan dut estaltzea Maalako autobus geltokia, garai batean Guass diskoteka zegoen tokian kokatua. Izan ere, goizean goiz etxetik irteten naiz ea zer eguraldi dagoen jakin gabe eta behin baino gehiagotan busti izan naiz autobusaren zain nagoela. Ez da batere eroso euria hasi, han busti eta autobusera blai eginda sartzea. Azkenean, hainbeste aldiz eskaria egin ondoren, jarri dute markesina autobus geltokian eta kexatu izan naizen moduan orain eskertu ere egin nahi nieke estalkia jarri dutenei, hemendik aurrera babes pixka bat behintzat izango dugu-eta”.



Pilota Eguneko laguntzaileei: “Ikastolaren izenean, eskerrak eman nahi dizkiegu martxoaren 12an ospatutako XIX. Pilota Eguna antolatzen lagundu zuten guztiei eta bereziki Lagunak Pilota eskolako arduradunei. Bestalde, eskerrik beroenak baita ere parte hartu zuten neska-mutilei. Datorren urtean ere laguntzeko prest egongo zaretelakoan.”



San Rokerako eskaileretan argia: “Juan Mugertza kaletik (Pista beltza) San Roke kalera igotzeko dauden eskailerak, orain dela gutxira arte, gabez, oso ilun egoten ziren eta handik ibiltzen ginenontzat arriskutsu. Orain argiztapen egokia ipini dute eta horrela asko konpondu da arazoa. Konponbide erraza eta era berean ona. Beraz, eskailera horien erabiltzaile eta herritar naizen aldetik Udalari eskerrak eman nahi dizkio!”.



Edukiontzia leku txarrean Basarten: “Edukiontzia leku txarrean ipini zituzten eta ondorioz arriskutsua bihurtu da honako bihurgunea. Gainera, autoek bihurgunea pasatu eta berehala zebra bidea dute, hori gutxi ez eta edukiontzien parean, debekatutako tokian autoak aparkatuta egon ohi dira. Zebra bide horretatik pasatzen garenok astero ikusten ditugu arriskuak. Noiz arte? Istripu larri bat gertatu arte?”. Udalaren arabera eta mankomunitatearekin batera aztertuko dute eta ahal den neurrian mugituko dituzte arriskurik egon ez dadin.

“Gure belaunaldiak kontatzeko asko du”

► **UNAI VILLENA CAMARERO** IDAZLEA



Industria ingeniaria da Unai Villena Camarero (Elgoibar, 1980). Industrian urte batzutan lanean eman eta gero unibertsitatera itzuli eta gaur egun Hegoan, Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutuan dihardu, garapenerako lankidetzeta politikaren gardentasuna aztertzen. Gardena erakutsi duena, ordea, bere lehen eleberriko gaia da. *Hauts haletatik* lanean drogamenekotasuna eta gaixotasun mentalak izan ditu hizpide lagun baten bidez jasotako gertuko gaia drama eran fikziora eramanez. Bi gaitzen konbinazioa Osasun Sistema publikoan tratatzen ez dela iritzita besteak beste bere helburua izan da gizarteratzea arazo hori duen jende asko dagoela, baita nola aurre egiten dioten ere.

- IRATI AGIRREAZALDEGI -

◆ Ingeniari eta idazlea. Askorentzat lotura harrigarria, baina urte askoan diharduzu literaturari lotuta?

Institutu garaian idatzi eta lehiaketetan parte hartzen nuen, Eusko Jaurlaritzako Urruzuno saria, esaterako, hiru urtez jarraian irabazi nuen. Elgoibarren Urruzuno literatura taldea sortu zen herriko gazteak literaturaren inguruan biltzeko eta hango partaide ere izan nintzen. Hamaika Litera izeneko aldizkaritxoak kaleratu eta litera-

tura astea antolatzen genuen. Horrela gorde nuen harremana literaturarekin. Unibertsitatera joan eta ez neukan irakurtzeko denbora askorik, baina idazten beti jarraitu izan dut. 2012an Edorta Jimenezek gidatutako sorkuntza tailer batean hasi nintzen eta idazteko gogoak piztu zitzaidan. Argazkilaritzan ari den Aitor Gomezlagunarekin blog bat sortu nuen astean behin bere argazki bati nik testua jarri eta publikatuz. Asier Olabarrieta lagun musikaria

gehitu eta hortik etorri zen *Hiri asko bere baitan* hirurok osatutako proiektua eta paraleloan eleberria idaztearena.

◆ Eleberrri honen proiektuak lgartza sarian irabazi zuen. Esku artean duzunean zer sentitu duzu?

Sentipenen zurrunbilo bat: poza, lasaitasuna bukatu dudalako eta gustura gelditu naizelako, baina beste alde batetik nekeak, jendeak nola hartuko duen jakiteko gogoak eta antsietatea, bertigoa...

♦ Zer kontaktzen du liburukak?

1980an jaiotako Ander gaztea 24 urte zituela gaixotu eta 8 urtez psikiatriko eta desintoxikazio zentroetan egon ondoren, 33 urte dituela bizitzari berriz aurre egin behar diola ohartuta idazten hasten da. Iraganari buruzko hausnarketa prozesuan sartzen da zer gertatu zaion eta gaur egun gauzak nola dauden ulertu nahian. Bi hari horiek kateatzen dira: pertsonaiaren istorioa berreraikitzea iraganaren bitartez eta liburuaren idazketa bera.

♦ Hasieran Igartza sarira aurkeztutako ideiatik aldaketa asko egon dira?

Hasi berria naiz eta eleberria idatzi arte ez dut jakin benetan horrek zer dakarren. Planteatu nuena nahiko konplexua zen: pertsonaia baten istorioa kontaktzea bere lagun baten ikuspuntutik eta horrekin batera belaunaldi oso baten erretratu egitea. Egitura aldetik puzzle baten antzerakoa hiru motako piezekin, kapituluekin: narratzaileak pertsonaia bati zuzendutakoak, pertsonaiak lehenengo pertsonaia kontatutako bere bizitzako pasarteak eta iraganetik erreskatatutako albo-pertsonaiek pertsonaiari buruz kontatutak. Egitura aldetik pentsatzen nuena bete dut, baina uste baino zailagoa izan da belaunaldiaren erretratu egitea gaiak duen konplexutasunagatik. Beraz, erretratuaren ordeztu bozeto moduko bat egon dut.

♦ Zergatik da hain konplexua?

Hiru ataletan banatua dago eta guztira 50 kapitulutik gora dira. Kapitulu horietan nahasten dira ahotsak, teknika narratibo ezberdinak, poesia eta musika. Kapitulu askok hasieran kantu baten zati bat dute. Esaterako, pertsonaiaren oroitzapenetako bat 6 urterekin Debako hondartzara bidean kasetean entzuten zuen Hertzainaken kantu bat da. Jendearen oroitzapenak pizteko ere balio dezake musikak, askotan lotzen dugulako gure bizitzako momentuekin, pertsonekin... Bide batez euskal musika taldeei omenaldi txiki bat egiteko ere balio izan du.

♦ Gaia bera ere konplexua dela diozu. Zure bizipenetatik asko idatzi duzulako, beharbada?

Errealitatean oinarri sendoa duen fik-

zio bat da. Errealitatean dauka oinarria, nik ezagutzen ditudan pertsonen bizitzak kontuan hartu ditut pertsonaiak eraikitze-rako orduan. Batzuetan horrela idazteak errazten du oinarri bat ematen duelako pertsonaiak eta istorioak nondik eraiki jakiteko. Baina idazterakoan lotuegi egonez gero, zaildu egiten du eta oreka aurkitu behar da. Nik hemen sartu ditudan gauza batzuek badute errealetik. Nik sartu nahi nituen eta editoreak esan arren horiek gabe ere funtzionatzen zuela, saiatu naiz sartzen.

“Drama bat izateak ez du esan nahi barruko guztia dramatikoa denik, umore puntu batzuk ere badaude”

♦ Zuk bizi izandako garai horri buruz idatzi nahi izan duzu beraz.

Askotan esan izan da esne-mamitan hazitako belaunaldi bat dela gurea, ez daukagula kezkarik, dena eginda eman izan digutela... Baina nik uste dut gure belaunaldiak kontaktzeko gauza asko daukela eta guri tokatzen zaigula horri buruz hitz egitea. Ikusten dut gaur egun jendea Gerra Zibilari buruzko liburuak idazten eta garai hura garrantzitsua izan zen arren guk bizitako garaiari buruz ere asko dago kontatzeko. Niri interesatzen zitzaidan umetan ikusle bezala bizi izan genuen hiesaren kontua aipatzea edo gerora bizi izan ditugun aldaketa sozio-kulturalak globalizazioaren aldetik eta horrek gudan izan duen eragina eta liburuak aukera hori eman diit hein batean.

♦ Eleberrri bat da, baina fikziotik ez ezik barruan badu bere funtsa.

Bai, hemen daude hausnarketarako bidea zabal dezaketen gai asko, baina hori irakurlearen araberakoa da, batzuk gertaera batzuetan zentratuko dira eta besteak besteetan hari-mutur asko utzi ditut

aske. Irakurri dutenak, gehienak gertukoak izanik, haien inpresioa ez da oso objektiboa. Gaia gogorra da, izan da liburu gogorregia iruditu zaionik ere. Ez da eroso, baina gehienek gustura irakurri dute eta esan didate hausnartzera eramantzen dituela. Indiferentzia izan ezik beste edozer sortuko duela uste dut.

Drama bat da, baina horrek ez du esan nahi barruan dagoen guztia dramatikoa denik, umore puntu batzuk ere badaude eta saiatu naiz ikuspegi positiboa ematen. Erantzunik gabeko zalantza eta galdera asko agertzen dira. Drama izan arren niri interesatzen zait hausnartzera eramaten nauen literatura. Doako dramak ez zaizkit gustatzen.

♦ Gaia gogorra da, gaitz mentalak eta drogomendekotasuna baitira nagusi. Jendeak zein jarrera erakusten du gai horien aurrean?

Zuzenean edo oso gertuan bizi ezean zaila da horren inguruko ikuspegi erreala izatea. Gaur egun ere, gaitz mentalen inguruan aurreiritzi asko daude, estigma handia dauka gizartean, hurruneke zer-bait iruditzen zaigu nahiz eta denok eza-gutzen dugun norbait pairatzen duena. Gizarteak baztertzen ditu gaixo mentalak eta horren adierazle da beraiek ez dutela horrela azaldu nahi.

♦ Liburuak kaleratu berria den arren, bala duzu beste proiekturik esku artean?

Nik nahi dut orain liburuak bere bidea egitea eta irakurleen iritzia jasotzea. Irakurle taldeetatik deituz gero gustura joango naiz. Idazten jarraitzen dut eta jarraituko dut, baina modu lasaian.

Hiri asko bere baitan, Bilboko Udalak saritu zigun proiektutik Hiri asko kulture gintza elkarteak ere sortu dugu emanaldiekin aurrera egiteko eta aurreantzean proiektu berriak sortzeko. Izan ere, zortzi obra sortu genituen, argazki erakusketa bat, liburuak eta zuzeneko emanaldiak. Orain, elkarteak *Biziki* proiektua prestatzen ari gara bizikletan hiri ezagutzeko, birplanteatzeko, modu ezberdinak erakutsiko dituen testu, argazki eta musikaren bidez. Liburuaren booktrailerra ere elkarteak sortu du.

“Etxe ondoan pantaila akustikoak jartzea baino ez dut eskatzen”



Joseba Olazabal AUTO ISTRIPUAK ZENBATZEN DITUEN MENDAROARRA

AP-8 autobidean, Donostiako norabidean, Mendaro parean ezaguna egin da istripuak zenbatzen dituen kartela. Ekimena Joseba Olazabalek jarri du martxan. Autobide ondoan bizi da, Granja etxean. Autobideko joan-etorrien eta kamioien zaratarekin gogaituta, pantaila akustikoak jartzeko eskaera egin du behin eta berriz, baina erantzunik ez duela jasotzen salatu du. Horregatik, kontraerasora jotzea erabaki du: autobideko tarte horretan gertatzen diren istripuak zenbatzen hasi da. Elkarrizketa egin diogun egunean, 2016an 37 auto-istripu zenbatu ditu bere etxe parean. Ez du gelditzeko asmorik bere helburua lortu arte.

- OIER NARBAIZA -

♦ Ez zara zaratarekin ohitu?

Lehen ere beti egon da hemen zarata, beti egon da. Azkenean pentsatu izan nuen azkenean hau itsasoa bezala zela: batzuk joaten dira itsasora olatuak entzutea, erlaxatzera, eta plan horretan hartu nuen filosofikoki. Baina orain dela urtebete batxeak jarri zituzten hemen, autopistan, abiadura moteltzeko edo, eta kristoren burundara sortzen zuten. Ez zen relaxa, marjada baizik! Orduan pentsatu nuen zerbait egitea. Hasi nintzen ipintzen bi-hiru kartel, eskasak, zarataren kontra. Istripuen kontrakoak ez ziren, bakarrik zarataren kontrakoak. Baina Bidegikoek kendu egin

zizkidaten kartelak.

♦ Eta gero zer egin zenuen?

Nik zarataren kontra jardun nuen, eta batxe horiek konpondu egin zituzten, gutxi gorabehera. Esan zidaten kontua konponduta zegoela, ez zegoela istripurik. Ikusten nuen nik ez zela horrela. Ez zidatenez kasurik egiten, emailak bidaltzen nituen. Bidali, bidali eta bidali... eta ez zidatenez ezer ere erantzuten, udaletxera joan nintzen. Alkateak esan zidan Bidegiko zuzendariari deituko ziola, harremana zuela berarekin. Handik 15 egunera esan zidan telefonoa ez ziola hartzen. Bidegik korreo bat bidali

zidan niri zarataren neurria begiratzera etorriko zirela eta harreman denak nirekin ez zituztela edukiko.

♦ Zer dela eta hasi zinen istripuak zenbatzen?

Abuztutik hona nik segi eta segi, eta kasurik ez. Kristoren zarata neukan hemen, goizeko bostetan hasita. “Zerbait egin behar dut”, pentsatu nuen. Behin Chopinen hamargarren Opusaren hirugarren mugimendua entzuten nengoela (barebare bezala hasten da, gero ekaitza bezala da eta berriz barebare amaitzen da) pentsatu nuen: “Horrelako zerbait egin behar dut”.

◆ Noiz hasi zinen etxe ondoko istripuak zenbatzen?

Azaro partean pentsatu nuen: "Hau bare-bare badoa ekaitza sortu behar dut". Istripu mordoa dago eta jendeak ikusiko du. Hemen *folloia* sortuko da. Hau ekaitza da. Orduan hasi nintzen kartelak ipintzen, poliki-poliki istripuak kontatzen eta orain arte. Istripua dagoenean galdetu egiten diot jendeari ea bizkor doan. Esaten didate ezetz, ez dela horren arazoa. Gainera ikusita dutela kartela, eta horregatik frenatu egiten dute. Eta hala ere istripua edukitzen dute.

◆ Gehienetan euria ari duenean izango dira...

Gehienetan.

◆ Eta orain?

Ea ematen didaten soluzioa! Eta ea ekaitzetik barera pasatzen garen.

◆ Zer eskatzen duzu orduan?

Pantaila akustikoak jartzea hemen. Nik ez dut gauza gehiago eskatzen. Badakite ni bakarrik bizi naizela hemen; hor beste etxe bat dago, eta bi etxerengatik gastu mordoa da eurentzat eta ez didatela ezer ipiniko. Hori pentsatzen dut, baina nik segi egingo dut hori lortu arte. Istripuena beste gauza bat da...

◆ Ez dizu beldurrik ematen kamioiren bat zure etxera jausteak?

Horixe ematen didana. Arbola horiek nire aita zenak sartu zituen horren beldurra zuelako. Kamioiak eta autoak jausten ziren eta beldurraz zuhaitzak frenatzeko ipini zituen.

◆ Zein izan da hemen ikusitako istripurik ikaragarriena?

Kamioi bat, Donostia aldetik zetorrena. Hautsi zuen mediana eta etorri zen etxeraino. Buelta emanda geratu zen. Eskerrak buelta egin zuen, bestela etxe barruraino sartuko zen hura! Gero bestela hemen ez dira izaten istripu larriak. Hildakoak ere egon dira hemen. laz ere hildakoak egon ziren, baina orain ez dira larriak izaten. Gehienbat pintura eta txapadun istripuak dira.

◆ Mendaroko istripuak sarri aipatzen dituzte irratian behintzat.

Beti. Joan zen urtean geratu zen kamioia

"Ez da lehenengo aldia nik salto egiten dudana autobidera laguntzera edo kotxeak gelditzera"

oilatokiaren atzean zintzilik. Azken urteko handiena hori izan zen.

◆ Zein modutan zenbatzen dituzu istripuak?

Askotan etxean egoten naiz ordenagailuan edo etxe bueltan lanean, eta entzun egiten dut. Entzun egiten da eta! Eta ez dudanean entzuten, Radio Euskadin esaten dute zein kilometrotan izan den, eta orduan badakit non den.

◆ Noizbait zaurituei laguntzea tokatu izan zaizu, ezta?

Ez da lehenengo aldiz nik salto egin dudana autobidera laguntzera edo kotxeak gelditzera. Ertzainak eta bideetakoak nahiko bizkor etortzen dira orain, baina lehen ez ziren hainbeste egoten. Hori askotan egin dut nik. Batzuetan zaurituta-koak gure etxera ekarri eta amak *primeros auxilios* egin dizkie, eta kurak, eta telefonoa laga izan diegu deitzeko.

◆ Besterik gehitzea nahi duzu?

Ea lortzen dudana. Ez dut ezer galtzeko eta ez da niretzako bakarrik. Langileak, ertzainak, lanean dabilzanak... arriskuan daude. Haiiek ere esan didate niri ondo nabilela

◆ Azken galdera. Istripuentzako zein da soluzioa? Abiadura mugatzea?

Bat bai; radarra beharbada honutzago ekartzea izan liteke. Abiadura 80ra mugatzea... Asfalto zimurtsuena jartzea? Baina hori jarrita oraindik zarrata handiagoa egongo da. Zer egin? Bidegikoek esaten dute ez dakitela zer egin. Asfaltorik garestiena sartu dutela, baina ez dute asmatu. Baina ni ez naiz injeniarria...





Udal Musika Bandaren kontzertua Arabako Errioxako upategi batean

Minbiziaren Aurkako Arabako Elkarteari laguntzeko kontzertua eskainiko du Elgoibarko Udal Musika Bandak Pagos de Leza upategian (Arabako Errioxa) bihar, martxoaren 19an. Elkarteak 25 urte beteko ditu apirilean, eta urteurrena ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu dituzte, tartean bandaren elkartasun kontzertua.

Bodega ezagutzeko bisita gidatua eskainiko dute lehenik, 12:00etan hasita eta ondoren, 13:00etan izango da kontzertua. Txomin Mujika zuzendariaren agindupean honako piezak joko ditu Elgoibarko Udal Musika Bandak: *Eduardo Borrás* pasodoblea (F. Esteve); *Appalachian Overture* (J. Barnes); *Suite Sinfonica 3. mugimendua* (B. Adam Ferrero); *The Saint And The City* (J. de Haan) eta *Abba Gold* (Ulvaeus & Andersson).

Botilak

Kontzertua amaitutakoan bodegako ardoak dastatzeko aukera izango da. Gainera, upategiak okasio berezi honetarako ehunka ardo-ondu botilari jarri die etiketa bandako argazkiarekin.

Udal Musika Bandaren arabera, izena eman behar da ekitaldi honetan parte hartzeko (telefono zenbakia: 945 621 212; e-posta: pagosdeleza@pagosdeleza.com). 12 euro ordaindu beharko dituzte kontzertua entzuteaz gain, bisita eta dastaketa egin nahi dutenek; kontzertua entzuteko bakarrik, berriz, 5 euro. Batutako diru guztia Minbiziaren Aurkako Arabako Elkartearentzat izango dela azaldu dute.



Megalitismoari buruzko bisita gidatuak Karakaten Aste Santuan

Harrien lagunak elkarteak plan berezia proposatu du Aste Santuko jai egunetarako. Megalitismoa ezagutzeko Karakate eta Hirukurutzeta artean ibilaldia egitera gonbidatu ditu garai hura ezagutu nahi duten guztiak. Inguru horietan dauden aztarna megalitikoetan barrena ibiliko dira bisitariak eta besteak beste harri aztarnen gaineko azalpenak emango dizkie elkarreko kide batek. Bisitak martxoaren 24an, 25ean eta 27an izango dira. Parte hartu nahi dutenek 10:00etan Karakateko antena aldamera azaldu baino ez dute egin behar. Bisita 4 eta 5 ordu bitartekoa izango denez, ondo prestatuta (jantzi eta jan-edana) joateko gomendioa egin dute antolatzaileek.

Gaztelumendi eta Soto bertso saio didaktikoan

Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa martxan da eta idatzizko txapelketa izan zen joan zen barixakuan Elgoibarren. Lehenengo, ordea, bertso saio didaktikoa-ekin gozatzeko aukera izan zuten ikastolako erdiko aretoa bete zutenek. Beñat Gaztelumendi eta Julio Soto bertsolariek jolas giroan egin zuten saioa eta entzuleetako batzuek ere hitzekin lagundu zieten. Gero, hainbat entzulek idatzizko txapelketan hartu zuten parte, Elgoibarkoetz gain, Bergara, Soraluze, Aretxabaleta eta Arrasatekoek, guztira 100 batek. Kanporaketak bukatuta, Eibarko finalean, apirilaren 17an, jakinaraziko dituzte irabazleak.



Jaialdia Inazio Bereziartua Musika Eskolako dantza ikasleek



Dantzan ikasi dutela erakutsi dute aste honetan Inazio Bereziartua Musika Eskolako dantzariak. Izan ere, bi ikuskizun eskaini dituzte Herriko Antzokian, eguaztenean eta eguenean. Arantza Aginako, Eire Vila, Jon Lizarralde, Maialen Astigarraga eta Olga Garcia irakasleen 6tik 17 urtera bitarteko 200 ikasle igo dira taula gainera bi egunetan. Zea Mays, Kortatu, Gatibu edo Hesian taldeen euskal rock doinuekin batzuek, Chayanneren zumba erritmoan besteak, Michael Jacksonen Thriller abestiarekin eta beste hainbat kantu entzunez, hankak, eskuak eta gorputz guztia mugituz, ikusleengan ere dantzarako grina piztu dute neska-mutil dantzariak.

Motxaila asteburua: bertso, kantu eta dantza giro alaian



Mendaro jai giroz jantzi zuten barixaku eta zapatuan Motxaila Asteburuaren aitzaian. Barixakuko bertso saioan aretoa bete zuten 120 bat lagun eta bertsolariak saio ona eskaini zuten. Zapatuan, berriz, inoiz baino jende gehiago elkartu zen kobazuloan, 60 bat. Kantu, poesia, musika alternatibo, bertso eta suekin saio hunkigarria egin zuten (bideoak Youtubeko *Motxaila Info* kanalean). Bazkaritan ere beste 60 izan ziren eta bazkalostean Debako musikariak oso fin, Inozentzio lasai eta txukun eta Zarauzko Agosti eta Barrena nekazekin, ia 5 orduko trikimaratoia eginez. Jendeak asko gozatu zuen Aragoiko Os Diaples da Uerbak San Jose plazan eskainitako su-ikuskitzuzarekin (Motxaila Egunaren filosofiarekin bat, suarekin eta oinarritzko elementuekin jolasean). Asteburua jai giroan amaitzeko gaueko Gaztetxeko kontzertuan ere lokala leporaino bete zen (argazkiak: *Motxaila Info*).

Martin Hernandez txapelkunorde pista estaliko Espainiako atletismo txapelketan

Gazte mailako pista estaliko 29. Espainiako atletismo txapelketa jokatu zuten martxoaren 13an Oviedon. Minxeta atletismo taldeko Martin Hernandez Beitia saltakariak 600 metrotako lasterketan hartu zuen parte, kadeteetan. Helmugako argazkiari begira erabaki zuten epaileek irabazlea, segundo-ehunen bateko alde atera baitzion irabazleak bigarregoa. Finalerdietan hiru serie jokatu zituzten. Elvin Josue Canalesek irabazi zuen aurrenekoa, Martin Hernandezek bigarrena eta Antonio Carlos Fernandezek hirugarrena. Seriotan Martin Hernandezek egin zuen denbora onena (1:26,40). Zortzi atleta lehiatu ziren finalean eta aipaturiko hiru saltakariak izan ziren azkarrenak. Amaiera estu baten ostean, Coria atletismo taldeko Antonio Carlos Fernandez andaluziarrek irabazi zuen urrea,



Martin Hernandez, ezkerrean.

1.25,19ko denborarekin. Martin Hernandezek egin zuen bigarren, 1.25,20ko denborarekin. Elvin Josue Canales sailkatu zen hirugarren postuan (1:26.85).

Mugertza krosetako argazki lehiaketako argazkiak Tantikan ikusgai



Minxeta Atletismo taldeak antolatutako Mugertza krosari buruzko argazki lehiaketara aurkeztutako lanak ikusgai daude Tantikan. Tabernako pareta eta zutoinetatik zintzilik egongo dira Aste Santu ostera arte, lehiaketara aurkeztu diren 38 argazkiak. Felix Morquecho argazkilaria eibartarrak irabazi zuen iaz lehiaketaren estreinako edizioa eta Miguel Castrok eskuratu zuen herritarren saria.



Apirilaren 18an hasiko dira emakumeen eta gizonen pala txapelketak

Emakumeen binakako pala txapelketa antolatu dute Elgoibarren bosgarren urtez jarraian, eta horrekin batera gizonen pala txapelketa ere antolatu dute estreinakoz. Bi txapelketak apirilaren 18an hasiko dira, eta apirilaren 4ra arteko epea dago izena emateko. Interesatuek Jai Alai tabernan eman behar dute izena. Kalegoen plazako frontoian jokatuko dituzte partidak, teniseko pilotarekin. Finalak ekainaren 2an jokatuko dituzte. Iaz, Amaia eta Jone Loiola (argazkian) izan ziren irabazleak. Elgoibarko Udalak, Lagunak Pilota Eskolak eta Elgoibar Berdintasuna Kirolean taldeak taldea dira antolatzaileak.

Enrike Artolaren idiek irabazi zuten apustua

Enrike Artola oiartzuarrak eta Egoitz Armaolea zumarragarrak kintopeko idi-apustua jokatu zuten martxoaren 12an, Sigmako probalekuan. Artolaren idi pareak ia bi plazako alde atera zion Armaolearen idi pareari, eta berak eraman zituen jokoan zeuden 2.400 euroak. Armaolaren idiak irten ziren lehenak probalekura, hori baitzen apustuko baldintzetako bat, eta 44 plaza, 2 zinta eta 5,43 metroko marka ezarri zuten Murgil harriarekin (1.775 kilo), ordu erdiko lanean. Artolaren idi pareak, baina, 46 plaza egin zituen.

48 neska-mutilek hartu zuten parte Ikastolaren Pilota Egunean



Gaztetxoan artean pilota eta oro har kirolerako zaletasuna sustatzeko asmoz, Pilota Eguna antolatu zuen, beste behin ere, Elgoibar Ikastolak. Pilotarien harrobia sendo datorrela erakutsi zuten 19. edizioan parte hartu zuten gaztetxoek. Guztira, 6 eta 12 urte bitarteko 48 neska-mutil aritu ziren lehian. Kalegoen plazan jokatu behar zituzten partidak, baina eguraldia zela-eta Ikastolako frontoian aritu ziren pilotan.

Elurtutako parajeaz gozatzeko aukera izan zuten umeek Morkaikoren irteeran



Aloña mendira igotzeko asmoa bazuten ere, elur asko zegoela-eta planez aldatu behar izan zuen Morkaiko mendi taldeak, ikastetxeekin elkarlanean antolatutako mendi irteeran 38 umek eta beste horrenbeste gurasok osatutako taldea bitan banatu eta Urbia aldera jo zuten batzuek eta Arriona aldera besteek, ibilbide arinagoen bila. Azaldu dutenez, batean zein bestean elurtutako paraje ederrez gozatzeko aukera izan zuten. Eta, esan gabe doa, umeek elur gosea asetzeko aukera izan zutela. Hurrengo irteera udaberrian izango da. Erniora (1.070 metro) joango dira apirilaren 24an. Era berean, Aste Santuan Pirinioetara joateko irteera antolatu du Morkaikok, martxoaren 24tik 28ra bitartean.

Emaitzak

FUTBOLA

Haundi 0 – Hernani 1 (Oho. Erreg.)
 Elgoibar 0 – Munibe 1 (1. Erreg.)
 Elgoibar 1 – Bergara 1 (Jubenilak)
 Eibar 2 – Elgoibar 1 (A Kadeteak)
 Elgoibar 1 – Antzuola 2 (B Kadeteak)
 Antiguoko 6 – Elgoibar 0 (Oho. inf.)
 Aloña Mendi 0 – Elgoibar 1 (Inf. Txiki)

ARETO FUTBOLA

Zierbena 3 – Concepto Egile 8 (Nazional B)

SASKIBALOAIA

Atletico San Sebastian 48 – Viento Sur 39

ESKUBALOAIA

Lauko 25 – Logroño Sporting La Rioja 33 (Senior emak.)
 Somos Eibar 23 – Alcorta Forging Group 27 (Senior giz.)
 Urola 22 – Gabaz 26 (Sen. giz.)
 Tecnifuelle 19 – Ereintza 20 (Jub. nesk.)
 Ereintza Aguaplast 34 – Beristain Banaketak 21 (Jub. mut.)
 Pneumax 24 – Kukullaga 22 (Kad. nesk.)
 Pulpo 29 – Deca 31 (Kad. mut.)
 Casa Astigarraga GYS Sport 26 – Bera Bera 27 (Kad. nesk.)
 Eibar A 31 – Bankoa 23 (Kad. mut.)
 Dario Bus 33 – Ordizia 12 (Inf. nesk.)
 Cometel 36 – Trapaia 27 (Inf. nesk.)
 Ereintza B 18 – Federopticos Ikus 19 (Inf. nesk.)
 H. Txarriduna 26 – Urola B 9 (Inf. mut.)
 Murgil 18 – Bidasoa 23 (Inf. mut.)

Agenda

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 19
 10:00 Elgoibar – Urki (Kadeteak 1. maila)
 12:00 Elgoibar – Lagun Onak (Oho. Inf.)
 16:30 Elgoibar – Zumaiaiko (Oho. Kad.)
 Domeka, 20
 09:30 Elgoibar – Lagun Onak (Benjamin)
 10:30 Elgoibar – Lagun Onak (Aleb.)
 12:00 Elgoibar – Eibartarrak (Aleb. parte hartzea.)
 12:00 Elgoibar – Lagun Onak (Benjamin)

ESKUBALOAIA (Olaizaga Kiroldegian)

Zapatua, 19
 10:00 Federopticos Ikus – Arantzazuko Ama (Inf. nesk.)
 17:00 Gabaz Elg. – Donibane Rueda
 Impermeabilizaciones (Senior giz.)
 18:30 Alcorta Forging Group – ATrapagaran (Senior giz.)

LANA.....
Eskaerak

Pertsona arduratsua adinekoak zaintzen interno modura edo baserriko lanetan aritzeko prest. 612 278 600

Adinekoak zaintzeko prest. Baita interna moduan ere. 602 193 095

Parketa jartzen dugu eta etxeak margotzen ditugu. 632 687 874

Adinekoak eta umeak zaintzen (interna edo orduka) eta garbiketan (hotelak, bulegoak, jatetxeak, etxeak, tabernak... lan egiteko prest. Erreferentzia onak ditut. Espainiako nazionalitatea. 626 914 904

Pertsona arduratsua lan bila haurrak edo adinekoak zaintzeko, orduka edo interna. 632 871 550

Adinekoak zainduko nituzke. Esperientzia eta erreferentziak ditut. Papearak indarrean. 619 456 925

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanetarako prest. Orduka (10:00-17:00). 632 256 679

Lanerako erabateko prestutasuna: adinekoak zaintzen, garbiketa lanetan. 656 866 255

Pertsona euskalduna prest adinekoak zaintzeko (interna ere). Erizain laguntzaile titulua daukat. 688 826 968

26 urteko pertsona lan bila. Zenbakizko kontrolerako titulua (tornua eta frezatzeko makina). 634 932 122

31 urteko pertsona zerbitzari, sukaldari laguntzaile, dendari, etxe laguntzaile edo umezain lan egiteko prest. 651 544 858

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbitasun lanak egiteko prest. Interna edo orduka. 632 776 905.

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbitasun lanak egiteko prest. Interna edo orduka. 628 738 472

Adinekoak zaintzeko prest, interna moduan ere. 620 619 287

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbitasun lanak egiteko prest. 680 808 125

Adinekoak zaintzen eta etxeak zein elkarrekin garbitzen egingo nuke lan. 617 571 210

Etkez etxe garbiketa lanak egiteko prest. 637 102 725/943 744 033

Adinekoak zaintzeko prest. Interna edo bestela orduka. 688 858 391

Adinekoak zaintzeko prest. Interna edo bestela orduka. 688 638 980

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako prest. Sukaldari laguntzaile lana ere hartuko nuke. 666 008 974

Adinekoak eta umeak zaintzeko prest, orduka. 28 urte ditut. Esperientzia daukat. 632 372 864

Margotze-lanak egiteko prest. Oso merke. 15 urteko esperientzia dut. 634 245 882

Adinekoak eta umeak zainduko nituzke, orduka edo lanaldi osoan. Garbiketarako ere egiten ditut. 638 338 816

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanetarako (tabernak, portalak, etxebizitzak) prest. 631 790 555

Adinekoak zaintzeko prest. Interna, orduka edo ospitalean gauak pasako nituzke. 631 534 125

Eskaerak

Epe motzean, Ilunpe Taberna hartzeko prest dagoen norbaiten bila gabiltza. Informazio gehiagorako, tabernan galdetu edo deitu. 943 254 252 / 645 599 810

ETXEBIZITZAK.....
Alokairua

Etxebizitza hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. 450 eurora arte ordaintzeko prest. 626 879 255

LOKALAK.....
Alokairua

Xagua taberna alokatzen da, San Franzisko kalean. 605 741 485

Salgai

Lokala salgai Olaso poligonon. 181 metro koadro ditu. Prezio interesgarria. 677 788 627

GARAJEAK.....
Salgai

Garajea salgai Arregitorre 12an. Itxia. 38 metro koadro. 663 928 169

Garaje itxia salgai Jausoron (Santa Klara bidean). Auto bat eta bestelakoak gordetzeko lekua ditu. 696 874 842

BESTELAKOAK.....

Betaurrekoak galdu nituen San Roken, Otzak inguruan, martxoaren 11 gauean. Graduatutakoak eta progresiboak dira. Saria emateko prest nago. 680 183 907

1966an jaiotakoan jaia maiatzaren 28an. Luntxa, bazkaria eta askoz gehiago gure 50 urteak ospatzeko! Izena emateko sartu 66 € Laboral Kutxako kontu honetan: ES39 3035 0007 28 0071132266. Dirua sarzearan eman zure izena, bi abizen eta telefono zenbakia. Izena emateko azken eguna apirilak 28. Zatoz, mundiala izango da!



P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar
943 743 140 - rosapf@telefonica.net



Jakin nahi nuke zein diren errenta kontratu batek arautu beharreko alderdiak eta ea idatziz jaso ahal izango den etxebizitzaren alokairua ahoz egin bada.

Legeak dio alokairu kontratu batek gutxienez honakoak jaso behar dituela: bi alderdiak (alokatzailea eta maizterra) zein diren, etxebizitza nolakoa den (deskribapena eta katastroko erreferentzia), alokairu-kontratuaren iraupena, kontratuaren hasierako errenta eta bi alderdien arteko itunak.

Hiri Errentamenduen Legeak agintzen ez duen arren –beste arau batzuek bai– derrigorrezkoa da kontratuarekin batera bizitzeko baimena eta energia-agiria aurkeztea.

Itunetan, bi alderdien borondatea islatzeko, gomendagarria da ahalik eta zehatzenak izatea. Ahoz egindako errentamenduetan arazoa sortu daiteke egindako itunak zehatzeko eta egiaztatzeko. Batek besteari ahozko kontratua idatziz egitea eskatzen badiu beste aldean derrigortuta dago idatziz formalizatzea. Ezezkoa emanaz gero, besteak prozedura judiziala eskatu ahal izango du. Hala ere, ezezkoa mantenduko balu epai-leak ordezkatu ahal izango luke bere izenean kontratua formalizatuz.

AHOLKUA: Ez dago inolako modu berezirik ahozko kontratu bat formalizatzen. Egin daiteke dokumentu pribatu batean edo notarioaren aurrean emandako eskritura publikoan.

ROSA Mª PINTADO: Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749



Centro Vasco de Estudios de Administración de Empresas
Instituto Vasco de Administración de Empresas
Colegio Profesional de Administradores de Empresas



Hurrengo zenbakirako, argazkiak martxoaren 30ean, eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira **BARRE**neko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Jon**, martxoaren 25ean 8 urte bete zenituelako. Muxu handi bat etxekoentzuek partez!



Zorionak, **Maia**, martxoaren 21ean 10 urte bete dituzulako. Etxekoentzuek eta bereziki Gorkaren partez.



Zorionak, **Alai**, 6. urtebetetzean, mila muxu guztien partez!



Zorionak, **Danel**, Jadanik 2 urtetxo! Mila zorion eta muxu handi bat familiarientzuek eta bereziki Markel eta Endikaren partez.



Zorionak, **Maddi**, 7. urtebetetzean. Etxekoentzuek eta bereziki ahizpa Garazi eta lehengusu guztien partez.



Lur, luze haina labur, labur haina luze, zorionak hankaluzel!



Zorionak **Martin**, zure 4. urtebetetzean. Paularen eta osaba-izeben partez.



Zorionak, **Pipi**. Muxu potolo bat etxeko danon partez.



Zorionak, **Nagore**, asteazkenean 5 urte bete dituzulako. Egun zoragarria pasa, etxekoentzuek partez!



Harriet, 6 urte igandean! Zorionak, etxeko guztien partez, batez ere, Aritz, Intza eta Malenen partez.

Erretratu bakarrekogurra:
4'50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarrekogurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€.
Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€



IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulaeta
Dentista

Ardeleko orratziko kontatze ordua:
8:00 orduetatik 22:00 orduetara

Zapatarietan:
10:00 orduetatik 14:00 orduetara

Familiarientzuek Osasuna

Zure familiarientzuek ahoaren osasunaz arduratzen garelako

Gutaz fidatu eta jarrai iezaguzu

Facebooken: Clínica Dental Irazabal Eta Twitterren: @Clinicairazabal



FINANTZIALIZAZIO BEREZIA. Abarzaila ekonomiko handiak eta finantzializazio egin hobekoa. GALDETU

IRAZABAL
clínica dental

Julán Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR
Tel: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com



Jarri ezazu zure publizitatea
BARREN astekarientzuek edo
www.barren.eus webgunean

☎ 943 744 112

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

Lehen aldientzuek...

PENTSATZEN NUENA BAINO EROSOAGO SENTITU NINTZEN.

Egin ezazu lentillen lehen froga bat doan. Miopia, hipermetropia, astigmatismo edo ikusmen nekatuentzuek.




Uzuri ELGOIBAR - DEBA
RPS 183/12 optika audio
www.uzurioptika.com

Elgoibarren dardarabako produktuentzuek froga nagusia hartzen da ordu. Produktuentzuek egiaztatzen dituzte. Barrenen 943 744 112 telefono zenbakientzuek informazioa ematen dute. Produktuentzuek orduko informazioa ematen dute. Produktuentzuek orduko informazioa ematen dute. Produktuentzuek orduko informazioa ematen dute.

18 BARIXAKUA

21:30 Zine foruma: *Clara Campaamor. La mujer olvidada*. Dinamizatzailea: Loredi Salegi. Antolatzailea: Haizea. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

19 ZAPATUA

23:00 Komedia gaua. Tony Antonioren bakarriketa. Tantaka tabernan

20 DOMEKA

12:30 Zuhaitz Eguna. Altzolako parkean.

24 EGUENA

10:00 Bisita gidatua Karakateko megalitismoa ezagutzeko. Antenatik. Martxoaren 25ean eta 27an izango dira bisitak.

29 MARTITZENA

17:00-20:00 Futbolin txapelketa. Izen ematea egunean bertan edo aurrez whatsapp bidez: 628 170 330. Gaztelekuan.

1 BARIXAKUA

17:00-20:00 Argazki ralya. Gaztelekuan.

Nabarmenduak Bisita gidatuak Geoparkean

Martxoan eta apirilean astebururo, Euskal Kostaldeko Geoparkeak proposamen erakargarriak eskainiko ditu Mutrikun, Deban eta Zumaian. Flyscha, itsaslabarra, Algorri, Olatz bailara, Lastur, Saturrarán... ezagutzeko. Oinez batzuk eta itsasontzian besteak. Bisitek geologia, edertasun handiko paisaiak, kultura eta turismoa uztartzen dituzte. Aste Santuan eta Pazkoa Astean Geoparkeak handitu egingo du bisita gidatuen eskaintza. Beraz, bisiten ordutegiari buruzko informazioa eta erretserbak aurrez egiteko aukera webgune honetan aurkituko dute bisitariek dago: www.geoparkea.com.

ASTE SANTUKO ETA PAZKOA HIRURRENEKO ELIZKIZUNAK

Abuztuak 15, 16 eta 17

20 ERRAMU DOMEKA

Maala 08:15 Erramuen bedeinkazioa, prozesioa eta meza.
Santa Klara 09:30 Erramuen bedeinkazioa, prozesioa eta meza.
San Lorentzo 10:30 Erramuen bedeinkazioa eta hitzaren liturgia.
San Pedro 10:30 Erramuen bedeinkazioa eta hitzaren liturgia.
San Migel 11:30 Erramuen bedeinkazioa eta hitzaren liturgia.
San Antolin 11:30 Erramuen bedeinkazioa eta hitzaren liturgia.
San Bartolome 11:30 Erramuen bedeinkazioa, prozesioa eta meza.

21 ASTELEHENA

San Bartolome 19:00 Adiskidetze ospakizuna (euskaraz).

22 MARTITZENA

San Bartolome 19:00 Adiskidetze ospakizuna (gaztelaniaz).

23 EGUAZTENA

San Antolin 20:00 Adiskidetze ospakizuna (euskaraz).

24 EGUEN SANTUA

San Bartolome 10:00-12:00 Banakako penitentzia. 19:00 Azken afariko ospakizuna. 22:00 Jaunaren aurreko otoitza.

Santa Klara 19:00 Azken afariko ospakizuna. 21:30 Jaunaren aurreko otoitza.

25 BARIXAKU SANTUA

Santa Klara 09:00 Irakurgaien ordua. 11:30 Gurutz-bidea. 17:00 Jesusen heriotzako ospakizuna.
Maala 10:30 Gurutz-bidea.
San Bartolome 18:00 Jesusen heriotzako ospakizuna.

26 PAZKOA ZAPATUA

Santa Klara 20:30 Pazkoa gaubela.
San Bartolome 21:00 Pazkoa gaubela.

26 PAZKOA DOMEKA

Maala 08:30 Meza.
Santa Klara 10:00 Meza.
San Lorentzo 10:30 Hitzaren liturgia.
San Pedro 10:30 Hitzaren liturgia.
San Migel 11:30 Hitzaren liturgia.
San Antolin 11:30 Hitzaren liturgia.
San Bartolome 11:30 Meza eta prozesioa.

A. Garate
 Era guztietako igeltzeritza lanak egiten aditua
 angelmgarate@gmail.com
 Santa Ana kalea, 28 behea - 2. zkia - 20870 Elgoibar
610 226 651

atzak
 taberna
 San Roke 28, behea
 943 531 301 / 646 443 183
 Bazkari eta afori bereziak ematen ditugu

Zinea (Herriko Antzokian)

'Spotlight'

18 Barixakua, 21:30
 19 Zapatua, 19:00 eta 22:15
 (Jatorrizkoa azpituluekin)
 20 Domeka, 19:00
 21 Astelehena, 21:30



'The snow queen'

20 Domeka, 16:30

'Sufragistas'

24 Eguena, 21:30
 25 Barixakua, 21:30
 26 Zapatua, 19:00 eta 22:15
 (Jatorrizkoa azpituluekin)

'Zootropolis'

27 Domeka, 16:30

'Embarazados'

24 Eguena, 21:30
 25 Barixakua, 21:30

Botika ordutegiak

09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

Guardiak

09:00 - 22:00

18 Barixakua FERNANDEZ
 19 Zapatua YUDEGO
 20 Domeka YUDEGO
 21 Astelehena ORUESAGASTI
 22 Martitzena BARRENETXEA
 23 Eguaztena IBAÑEZ
 24 Eguena FERNANDEZ
 25 Barixakua FERNANDEZ
 26 Zapatua GARITAONANDIA
 27 Domeka GARITAONANDIA
 28 Astelehena GARITAONANDIA
 29 Martitzena ORUESAGASTI
 30 Eguaztena ETXEBERRIA
 31 Eguena IBAÑEZ
 1 Barixakua GARITAONANDIA

22:00 - 00:00

Astelehenetik domekara
 ETXEBERRIA (Elgoibar)
 Santa Ana, 1 - Tel.: 943 740 140

00:00 - 09:00

IRAUNDEGI (Eibar)
 Fermin Calbeton, 19 -
 Tel.: 943 201 110

* Fernandez: Herriko enparantza 4,
 Garagartzeta (Mendaro)

Tel.: 943 756 142

* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze)

Tel.: 943 751 638

* Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze)

Tel.: 943 751 384

Telefono interesgarriak

Elgoibarko Izarra.....943 741 626
 Udaltzaingoa.....943 741 394
 Udalaren arreta bulegoa...943 741 050
 Udaleko idazkaritza.....943 743 700
 Bake epaitegia.....943 741 630
 Gizarte Ongizate saila.....943 741 008
 Hirigintza.....943 744 384
 Mankomunitatea.....943 700 799
 Debemen.....943 744 067
 Artekaritza (Hazienda).....943 744 414
 Berdintasun saila943 741 050
 Euskara saila.....943 744 366
 Kultura saila.....943 742 158
 Udal liburutegia.....943 743 525
 Gazteria saila.....943 531 319
 Gazte informazio gunea...943 257 986
 Ludoteka.....943 748 883
 Gaztelekuia.....943 743 228
 Enplegua/Merkataritza.....943 741 050
 Emugi.....943 747 371
 Kiroldegia.....943 744 415
 Mintxeta.....943 747 356
 Musika eskola.....943 742 145
 Udal euskaltegia.....943 742 731
 AEK euskaltegia.....607 601 423
 KZgunea.....943 023 640
 Jubilatuen biltokia.....943 740 526
 San Lazaro egoitza.....943 740 296
 Eguneko zentroa.....943 744 565
 Kontsumo bulegoa.....943 743 088
 Taxi geltokia.....943 740 898
 Larrialdiak.....112
 Gurutze gorria.....943 743 864
 Eusko tren.....902 543 210
 Pesa.....902 101 210
 Jokalari anonimoak657 710 156
 Alkoholiko anonimoak.....629 141 874
 Correos - Posta.....943 741 547

Mendaroko Udala.....943 033 282
 Liburutegia.....943 033 291
 Bake Epaitegia.....943 033 289
 Eguneko Zentroa.....943 031 746
 Mendaro Ikastola.....943 756 141
 Haurtzaindegia.....943 755 219
 Musika Eskola.....943 244 275
 Taxi607 57 57 28
 Ospitalea.....943 032 800

ORBE

PERTSIANAK EGITEN DITUGU
 TOLDO MOTA GUZTIAN ADITUAK

Karabixa, 1 - Ermua
 Tel.: 943 179 860

www.toldosypersianasorbe.com
persianasorbe@gmail.com

TOLDOAK ETA PERTSIANAK

ESARRI AUTOAK

MARKA GUZTIAK

ZERBITZUA

GLASO, 17
 20870 ELGOIBAR

Tel.: 943 741 480
 Fax: 943 031 576

Jon: 879 241 623
 Anton: 680 356 573

e.mail: esarriauto@gmail.com

HYUNDAI

MAZDA



Iñigo Lamelas

Jose Luis Azpillaga



A stelehenero moduan, San Pedro aldera etorri da pasiadan. Bakarrik dabil gaur, Arantxa laguna, gripeak jota, ez da etorri-eta. Berak, ordea, irten beharra dauka etxetik. Giro lardats honek ez du gogorik ematen, baina berak egurastu beharra du. Ernegatuta dago oraindik, Anjel senarrarekin astebukaeran izandako sesio gogorraren ondorioz. Kopetilun eta burumakur egin du ostera Lerun aldetik. Urrun geratu dira gazteagotan Anjelekin paraje hauetara pasiadan etortzen zeneko garaiak. Umeak ere etxetik joanak daude eta bera ito egiten da han, bakarrik. Hotz egin arren, zubiaren parera iritsi denean, gelditu egin da ibaira begiratzeko. Hazita dator azken egunetako euri mardulen ondorioz: bizi,

handi eta uherturik datoz ibaiko urak. Bere barrua ere halaxe dagoela bururatu zaio: harro, nahasi eta zikin.

Akorduan dauka behin Lerun aldeko beste pasiada batean ezagututako emakume atzerritar batek esandakoa. Hark zioen gustuko zuela ibaiaren ondoan urari begira egotea, bere tristura, amorruta eta pentsamendu txar guztiak ibaira botatzen omen zituen eta begira geratzen omen zen urak nola eramaten zituen ibaian behera gero eta urrunago, gero eta urritago berarengandik. Bakea lortzen omen zuen horrela. Entzun zuenean, txorakeria iruditu zitzaion, emakume arrotz baten xeblekeria. Baina, orain, berak ere horixe egingo du: bakardadea, Anjelen purrustadak, erru-sentimenduak ibaira jaurti eta begira geratuko da, ibaiko ur harrotuek gero eta urrunago nola eraman dituen ikusiz. Ibaian behera joan direnean, burua altxatu eta zeruan zabaldu den ostartera zuzendu du begirada. Arinduta sentitu eta aurrera jarraitu du.

*“Handi eta uherturik datoz ibaiko urak.
Bere barrua ere halaxe dagoela bururatu zaio: harro, nahasi eta zikin”*



I. URTEURRENA

Patxi Ajubita Ayesta

*Goizegi joan zinen gure albotik eta
harrezkero utzitako hutsunearekin bizi gara.*

*Zorionez gure bizitzaren atal bat
zurekin partekatu dugu,
zurekin gure bizitza
apur bat hobetuz zen eta.*

Etxekoak

2015eko Martxoaren 16an hil zen, 61 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurrenako meza izango da, zapatuan, martxoak 19, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zareteneri alde zuretik eskerrak.



I. URTEURRENA

Lurdes Zubiaurre Pujana

2015eko martxoaren 18an hil zen, 64 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurrenako meza izango da, zapatuan, martxoak 19, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zareteneri alde zuretik eskerrak.

*Hainbeste maite zenituen
zure bailara eta mendia,
zure alaba eta biloba txikia,
lagunak eta sendia.
Guk ere maite zaitugu,
egin lasai bidia.*

Etxekoak



I. URTEURRENA

Jose Zuazubizkar Goenaga



*Maite zenuen baserria ta
itsasoaren urdina,
maite zenuen familiaren
konpainia atsegina.
Gizon on eta borondatetsu,
langile nekazina,
ingurukoei lagundu nahian
hamaika esfortzu egina.
Beti gogoan izango dugu
zure bizitzeko grina.*



2015eko martxoaren 16an hil zen, 92 urte zituela. Haren oroimenez, I. urteurrenako meza izango da larunbatean, martxoaren 19an, iluntzeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome parrokian. Joango zareteneri alde zuretik eskerrak.

Aste Santua, bizi Euskadiren enkatua

Gertu da Aste Santua eta urrutikoak ez ezik gertuko turismoak ere badu enkantua. Larrabetzuko Azurmendin, Bizkaian, txakolinaren txinparta eta usainean; Baias Oiardon, Araban, garagardoaren aparrean. Hona bi plan aukeran, janean eta edanean gozatzeko planean.

Baias garagardotegia



Goarbia mendiaren magalera, Arabako Oiardo herriko baserri batera Baias errekek ur fresko eta garbia darama. Ur hori baliatu eta metodo industrialetatik aldeniduz bestelako edaria sortu eta probatzeko ematen dute han: artisau-garagardoa. Trago eginez zapore bereziak dastatzeko aukera izango dute bisitariek.

⌘ Zer eskaintzen duzue zuen garagardotegian?

Bi orduko bisita gidatuak larunbatetan talde txikitan. Lehen zatian azaltzen dugu, nola sortu zen garagardoa egiteko ideia. Ondoren, obradorean osagaiak erakutsi eta garagardoa nola egiten den azaldu eta bukatzeko, garagardoaren dastaketa egiten dugu.

⌘ Nolako garagardoa egiten duzue?

Bederatzi garagardo mota dauzkagu merkatuan. Gainera, berriki, nazioarteko garagardo lehiaketa batean bi zilarrezko domina jaso ditugu. Askotarikoak dira garagardoak: garagardo hori ekologikoa, gari-garagardoa, gorria, beltza, fruta-gustuko anbarra, Kerala kalabaza-garagardoa, lpa garagardo garratza, American pale eta txakolin-garagardoa.

⌘ Zer jasoko du zuenera joaten denak?

Azalpenak entzun eta garagardoa probatuta ikusten dute merkatuan orokorrean dauden garagardoetatik ezberdinak ere badaudela. Dena dela, garagardo-kultura gero eta handiagoa dago eta gero eta jende gehiagok edaten du artisau-garagardoa. Baina oraindik ezagutzen ez dutenak gonbidatu nahi ditugu gure kalitatezko produktuak probatzera.



Azurmendi konplexu enogastronomikoa

Larrabetzu eta Lezama artean dago Gorka Izagirreraren txakolin upategia eta Hiru Michelin izardun Eneko Atxa sukaldari ospetsuaren jatetxe gastronomikoa batzen dituen Azurmendi konplexu enogastronomikoa. Jateko eta edariaz gozatu ez ezik Larrabetzuko paisaiak eta Ertaroko elementu arkitektonikoak ikusteko baliatu daiteke bisita.

⌘ TXAKOLINDEGIRA BISITA

Azurmendi barruko Prêt À Porter Bistro eremuan, bisitariek Bizkaiko txakolin-upategi handienaz gozatu ahal izango dute. Gorka Izagirreraren upategiak bertako ardoa –Hondarrabi zuri eta Hondarrabi zerratia barietate autoktonoekin egina– ezagutzera emango du. Bisitak martitzenetik domekara bitartean izango dira eta gutxienez 10 laguneko taldea joan behar da. Upategira bisita txakoli kopa eta ogi-tosta eta beren baserriko tomatez lagundutako urdaiazpiko iberriarra dastatuz amaituko da. Bisitari, ordea, *Prêt À Porter* menua gehitu dakioke. Goi mailako sukaldaritza ezusteko formatu dinamikora egokitu eta egunero aldatzen den menua da.

⌘ MENU BEREZIAK

Txakolina ez da Azurmendiko aukera bakarra. Upategia, barruko lorategia, sukaldea zein egutegiko espazio berria bisitatu ondoren, eseri eta Eneko Atxaren menuak ere izango dira aukeran.

■ **ADARRAK:** bisita eta 2016ko menu berria. (3 ordu eta 50 minutu)

■ **ERROAK:** bisita eta urte guzti hauetako plater bereizgarrienez osatutako menua. (3 ordu eta 50 minutu)